

# ALOKAIRUA ORDAINZETIK ALDI BATERAKO SALBUESPENA EZOHIKO NEURRI GISA

Eusko Jaurlaritzak COVID-19 Funtseko 2,5 milioi euro bideratu ditu egoera ekonomiko kalteberan dauden pertsonen alokairuen ordainketaz arduratzeko.

## ZERTAN DATZA LAGUNTZA?



Laguntzak aldi baterako salbuesten ditu alokairuko eta komunitateko gastuak ordaintzetik egoera ekonomiko kalteberan dauden eta alokairu babestuko EAEko parke publikoko errentariak direnak.

Salbuespena 2020ko apirileko, maiatzeko eta ekaineko errentei aplikatzen zaie, hilabete osoz

## NOR IZAN DAITEKE ONURADUNA?



Onuradun izan daitezke 2020/03/14a baino lehen indarrean eta formalizatuta zegoen errentamendu-kontratu baten titular diren pertsona guztiak, norberaren izenean edo errentakide gisa, EAEko etxebizitza-parke publikoetako etxebizitza batean, baldin eta langabezia geratu badira edo, langile autonomoen kasuan, diru-sarrerak galdu badituzte edo salmentetan % 40tik gorako beherakada izan badute.

## NOIZ ETA NOLA ESKA DAITEKE?



Eskabideak 2020/05/31ra arte aurkeztu ahal izango dira (edo alarma-egoera amaitu eta hilabetera arte), honako kanal hauen bidez:

- [www.euskadi.eus/servicios/11022401](http://www.euskadi.eus/servicios/11022401)
- Zuzenean Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoak
- Alokabide sozietate publikoaren kanalak ([www.alokabide.euskadi.eus](http://www.alokabide.euskadi.eus))

## LAGUNTZAK ASAP, BIZIGUNE ETA GAZTELAGUN PROGRAMEKIN BAT EGITEN DU?



Bai. Bizigune eta ASAP programetan sartutako etxebizitzaren errentariak, aginduan araututako kalteberatasun ekonomikoko egoeran badaude, salbuespen-eskaera aurkeztu ahal izango diote kontratua sinatu zuten agente laguntzaile homologatuari.

Gaztelagun programaren kasuan, pertsona horiek apirilean, maiatzean eta ekainean jasotzen duten laguntza aitortuta zuten dirulaguntzaren osagarria izango da.